

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Miel Almortza Leizeaga

*Urnieta,
Gipuzkoa
(1926-2014)*

Aurkibidea



Biografia



Aita Almortza baserrikoa zuen eta ama Santiyoene baserrikoa. Bera, berriz, Lategi auzoko Beasaburu deitzen dioten baserrian jaio zen. Baserriko lanetan txikitatik ikasi zuen eta Beasaburun izaten zituzten lanez gain, Almortza baserria ere beraiek hartua zuten helburu bererako. Sei urterekin eskolan ibili zen eta Urnietan ohikoa zen bezala, hiru "komunio" egin zituen. Ezkongabea da eta Urnietan, kalean bizi izan da azken urteetan.

Zintak

URN-015

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ansa, Ainhoa
- **Data:** 2010-01-25
- **Iraupena:** 93 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Etxeberria, Eider
- **Transkribatzailea(k):** Elxpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Eskolara ezin joan

- **Erref:** URN-015/003
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:07:07. **Bukatu:** 00:08:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

10 urte zituela hasi zen lanean baserrian aitarekin. Eskolan hasia zen ordurako, baina osasun-arazoak zirela eta ezin izaten zuen nahi adina joan. Dotrinara joaten zen.

2. Klase partikularrak gerra hasi aurretik

- **Erref:** URN-015/004
- **Iraupena:** 0:02:33. **Hasi:** 00:08:42. **Bukatu:** 00:11:15

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Amak irakasle partikular batengana bidali nahi izan zuen Miel, eta sei laguneko taldea osatu zuten. Gerra Zibila sortu zenean, ordea, bertan behera gelditu ziren klase haiek. Klaseak non izaten ziren azaltzen du.</p>

3. Hiru jaunartzeak eta kongregazioa

- **Erref:** URN-015/007
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:12:30. **Bukatu:** 00:15:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Lehen hiru jaunartze izaten ziren: lehenengoa 7 urterekin, bigarrena 10 urterekin eta hirugarrena 11 urterekin. Lehen hilero aparteko meza izaten zuten luistarren kongregaziokoak izateagatik; egun hartan zinta jartzen zieten, eta zinta hura nolakoa zen azaltzen du.</p>

4. Ura iturritik ekarri behar etxera

- **Erref:** URN-015/009
- **Iraupena:** 0:01:59. **Hasi:** 00:15:54. **Bukatu:** 00:17:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Garbiketarak egiteko komeriak izaten zituzten baserrian: ura pertzetan ekarri behar izaten zuten iturritik. Ura oso garrantzitsua zen etxean, baina iturritik ekarritakoa baino gehiago behar izaten zuten. Norbere burua garbitzeko nola moldatzen ziren azaltzen du.

5. Baxuko sua eta ekonomika

- **Erref:** URN-015/010
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:17:53. **Bukatu:** 00:20:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Ura berotzeko, baxuko sua erabiltzen zuten hasiera batean, eta gerora

ekonomika. Baxuko suak nola funtzionatzen zuen eta zer tresna erabiltzen zituzten azaltzen du.

6. Etxeak su ez hartzeko modua

- **Erref:** URN-015/011
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:20:33. **Bukatu:** 00:22:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Sua pizten zutenean, etxeak su hartuko zuen beldur izaten ziren, haize handiak izaten baitziren; horregatik, sua babesteko moduak zeuzkaten.

Transkripzioa

-Geo gue etxian haiziak-eta ikeragarri izan izandu ohi da, eta suba pizteko bildurrak, etxiak su hartzeko bildurra izaten zan haundiya ordun. Eta gue etxian bazan hortik aurreako holako tamaiñatxo bat. Nik Urnitán basarritan sartu ta atea eiñ izan det baten baiño gehiagotan, ta iñun ez nun ikusten, eta ekonomika bezela bi zulokin. Ta azpitik hautsa ta ateatzen zala, behera juten zan hautsa, ta behetik hautsa ateatzen zala, ekonomika bezela bi zea zittun, bi parrilla bezela ta han haizia zanian.

-Hura babesxeago ala?

-Bai, harek barrukua baizun dana. Ta tximiniak berriz dana bon-bon-bon dana behetik gora. Gora tiratzen du tximiniak. Kia ere harek eramaten du ta.

-Eta beste ekonomika gisako horrek hango suan kia nora ateatzen zan?

-Kanpoa, bai. Kanpoa jarrita zun tuberi bat kia hua zeatzeko.

-Hua seguruxeagua zan ordun?

-Bai, haize-denboako. Oain harek zerak ez zittun haundik eta egur txikiya bihar izaten zun, eta gauza itteko denboa asko bihar. Baiña hua ere itten gendun hegoazia zanian. Pixkat sufritu, baiño... Alde askotara sufrittu giñun eta harekin'e sufrittu in bihar.

7. Sukaldeko harraska eta lotara joan aurretiko ohiturak

- **Erref:** URN-015/012
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:22:16. **Bukatu:** 00:24:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Sukaldean labetxoa eta harraska onak zeuzkaten: ontziak eta aurpegia garbitzen zituzten haietan. Ohera sartu aurretik, hankak garbitzeko ohitura izan izan du beti.

8. Bi baserritan lanean

- **Erref:** URN-015/014
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:29:26. **Bukatu:** 00:31:44

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Baserriko lana banatu egiten zuten gizonen eta emakumeen artean. Garai batean bi baserri izan zituzten, eta batetik bestera ordubeteko bidea zegoen. Neguan artzaina edukitzen zuten, harentzat gauzak prest utzi behar izaten zituzten. Emakumea izan da sukaldeko eta etxeko ardatza.

9. Donostiara egunero hanka-hutsik esnea saltzera

- **Erref:** URN-015/015
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:31:44. **Bukatu:** 00:35:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserrria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Emakumeak izan dira sukaldeko eta etxeko ardatza. Mielen amak bizimodu latza izan zuen: amona egunero Donostiara joaten zen hanka-hutsik buruan saskia zuela; Donostiara iritsitakoan janzen zituen alpargatak, lotsagarri ez gelditzeko jendaurrean.

10. Garia eta artoari esker janaria etxean

- **Erref:** URN-015/018
- **Iraupena:** 0:02:39. **Hasi:** 00:38:49. **Bukatu:** 00:41:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Garia
- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserrria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

<p>Garia egin zuten urte gutxi batzuetan. Igitaiaz moztzen zuten garia, lotu egiten zuten, metatu eta jo egiten zuten. Artoa ere egiten zuten: horri esker taloak egiten zituzten. Amak, amonak eta arrebak oso talo onak egiten zituzten.</p>

11. Negu gogorak eta haiei aurre egiteko moduak

- **Erref:** URN-015/021
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:42:57. **Bukatu:** 00:45:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Natura » Meteorologia

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Asto bat zeukaten etxean. Harekin trenera jaisten ziren behi-esnea garraiatzera. Neguan astoa irrista ez zedin, eutsi egiten zuten. Lehen neguak gogorrangoak ziren, eta ez zuten behar bezalako arropa izaten.</p>

12. Neguko baserriko lana

- **Erref:** URN-015/023
- **Iraupena:** 0:01:03. **Hasi:** 00:46:15. **Bukatu:** 00:47:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Neguan azienda gobernatzen zuten eta artoa zuritzen zuten. Artoaren azala (txupina) zertarako erabiltzen zuten azaltzen du.</p>

13. Eguraldi txarra zenean, artoa aletzen

- **Erref:** URN-015/025
- **Iraupena:** 0:02:31. **Hasi:** 00:48:37. **Bukatu:** 00:51:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko tresnak

Laburpena:

<p>Artoa eskuz aletzen ez zutenean, laia erabiltzen zuten. Kanpoan eguraldi txarra zenean aprobetxatzen zuten artoa aletzeko. Hasiera batean ez zuten argirik etxera eta farolekin edo bestelako tresnekin moldatu behar izaten ziren. Lehen egunaren argia hobeto aprobetxatzen zuten.</p>

14. Egurra mozteko ilargiari begiratu behar

- **Erref:** URN-015/026
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:51:08. **Bukatu:** 00:54:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia

Laburpena:

<p>Egurra mozteko ilargiak zeresan handia du. Noiz eta zergatik moztu behar diren arbolak azaltzen du. Egur mota bakoitzaren ezaugarriak aipatzen ditu.</p>

15. Eguraldia lehen eta orain

- **Erref:** URN-015/029
- **Iraupena:** 0:03:54. **Hasi:** 01:01:51. **Bukatu:** 01:05:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Natura » Meteorologia

Laburpena:

<p>Haize klaseei buruz hitz egiten du. Lehen galerna orain baino gehiagotan izaten zen. Harria udan izaten da, berorik handiena denean. Altzibarra zer den azaltzen du.</p>

16. Hilabeteko izoztea

- **Erref:** URN-015/030
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 01:05:45. **Bukatu:** 01:07:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Duela 54 urte hilabete oso batean izoztea egon zen; galera handia ekarri zuen horrek.</p>

17. Lehengo eta oraingo bertsolariak

- **Erref:** URN-015/034
- **Iraupena:** 0:04:19. **Hasi:** 01:11:17. **Bukatu:** 01:15:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Bestelako kontuak » Gaur egungo kontuak
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Lehengo bertsolari onak zein ziren aipatzen du. Lehen bertsolariak ez ziren noiznahi izaten. Gaur egungo bertsolaritzari buruzko iritzia ematen du.</p>

18. Sagarrak bildu eta sagardotegia gobernatu

- **Erref:** URN-015/037
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 01:20:57. **Bukatu:** 01:24:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Taberna giroa
- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak
- Baserria » Baserriko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

<p>Sagarra nola biltzen zituzten azaltzen du. Amonaren garaian sagardotegia zeukaten, baina gerora utzi egin zuten. Sagardotegiko komeriak entzunak ditu Mielek.</p>

19. Herri-izenen etimologiak

- **Erref:** URN-015/039
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 01:25:20. **Bukatu:** 01:26:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Kaleak, plazak
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

<p>Herrien izenen etimologiari buruzko azalpenak ematen ditu.</p>

Transkripzioa

-Lehen esan dizkidazu herri izenak. Urnieta nola da?

"Ur-mi..., Ur-ne ez, mi, me, me, mi ez, "mehe", Ur-mieta. Nik hor ikusten det, esan nahiko du "ura mia" edo; meheta. Eta Hernani, berriz, "erne", Henani ez, "erne ni". Erne egoteko edo holako zerbait esan nahiko du. Hernani. Eta Andoain, berriz, "Andolain". Andoain ez, "Andolain". Ta Billabona, berriz, Biyona". Zeatik bi harrapatzen baitittu harek.

-Eta hoik nun aittu dittuzu zuk hoik?

-Aurrekuei. Aurrekuei aittutakuak dizkit hoik. Ta egongo dia hemen asko ta asko ez dakienak.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-09-04

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com